

ORREAGA

ORREAGA

Altabizkar (2008.8.15)

Gaur, abuztuak 15, garrantzi politiko handia duen eguna ospatzen ari gara, non euskaldunok, herri askea izateko erabakia hartu genuen, duela 1.230 urte. Inoren baimenik gabe, autodeterminazio eskubidea erabili genuen, 778. urtean menperatu nahi izan gintuzten erasotzaileak militarki garaituz.

Data hau, gure herriak, urte batzuk beranduago, 824. urtean hain zuzen ere, biziraupenerako eraiki zuenaren atarikoa izan zen: Estatu; Nabarra estatu europarra.

Asko izan dira, nabar herriaren gaitasuna gutxietsi nahi izan dutenek: Orreagako balentria, artzai setati batzuen bailitzan; gauez, herriak pilaturik mendi kaxkoetan, ejertzito baten atzekaldea erasotu eta gero arinki ihes egin zutelarik, berriro bere bitzta atzeratu eta basatira itzultzeko.

Independenteak garen euskaldunok, oso bestelako irakurketa egiten dugu: Soilik oso ondo antolatutako herri batek, garai hartako teknologia militar hoberenarekin eta estrategia politika argiarekin, garaitu zezakeen Europako ejertzitorik boteretsuena.

Gaur egun, herri honek, berezko kultura eta hizkuntzaren jabe izatea, 8 mendez estatu burujabea izateari zor dio; Estaturik gabe, desagerraraziko gintuzten.

Bere kultur identitatea babesteko ahalmena iraunarazi du; hala ere, ez du adierazten bere ahalmen politiko itzela; ez du ikusten eta ez daki azaltzen bere osagai politikoa.

Gaurko egoera politikoa, gorago adierazitakotik oso urrun dago.

Zeinek eragozten du gaur, herri honek garatu dezakeen ahalmen politiko osoa berriro indarrean jartzea?

Horren erantzule dira, bere burua klase politikotzat dutenek, hau da, erdipurdikoak, konplexuz beterikoak eta esanekoak izan, eta gure nazioaren interesak defendatzen dituztela diotenek.

Euskal siglak dituzten erakunde multzoa, erabat edo partzialki txertatuta instituzioetan, "biolentziaren" kontra edo alde, beti oinarritzen dira herri-indarren gutxiespenean, eta indar hau, "elkarrizketarekin" edo "atentatuekin" ordezkatzan saiatzen dira. Baina politikoki bideratutako eta zuzendutako indar metaketa nahikorik gabe, ez dago ez elkarrizketarik ez eta atentaturik ere, ezertarako balio duenik; batak zein besteek, soilik zehaztutako estrategia baten

baitan lortzen dituzte garrantzia eta balio politikoak. Estrategiarik gabe, berreskuratze bide hutsak bihurtzen dira, eraginkorra den estrategia bakarraren atal eta osagai: betiko Espainia eta Frantziako gobernuen euskal-hiltzaile estrategia.

Espainiak okupaturik dituen lurraldeetan, zehazki, bai gure eskubideen parlamentarizazioa, bai eta gure indarrak, bazterrean geratuta dagoen bakarkako terrorismoaren bidetik erabiltzea, espainiar nazionalismoaren estrategia erredukzionista eta totalitarioa baliatzen dute, bi bide horiek goraiatzeko dituztenen asmoak alde batera utzirik.

Gure lurraldeetan jarduten duten partidu politikoak eta sindikatuak, guztiak, salbuespenik gabe, egiatzko oztopo dira, traba, eragozpena, euste-horma itzelak, benetako estrategia nazional bat indarrean jartzearen kontrakoak.

Horma hori, talde horietako oinarriko jendeak soilik bota ahal izango du, okupatzailearen logikatik irtetea; norabide egokian jardutea: gure estatalitatea oinarri duen politika nazionala suspertzen duena.

Halere, egoera larriak ez gaitu itsutu behar. Ezin dugu inolaz ere amore eman, nahiz eta baldintza zailenetan aritu. Paktismoa, kosoberania, euskal herriari hitza ematea, euskaldunen erabakitze eskubidearena, ... amarruak baino ez dira, etsaiaren logika, etsaiaren hitzak bertakoen ahotsetan.

Bi dira egin beharreko galderak: nola igaro, balizko subjektu politikoa izatetik (izan daitekeena), subjektu politiko aktiboa izatera? eta, zein da bidea, nabar hiritarrok derrigorrez egin behar duguna, gure biziraupena bermatuko duten askatasun mailak lortuko dituen?

Zeren eta orain, gure herria, bide horretatik kanpo dabil, desagertzeko noraezean dabil.

Orain eta hemen, estatua abiaraztea, ezinbesteko lehentasun estrategikoa da. Gainerako eztabaidak, behin eta berriz porrotera garamatzaten hitz zuriak dira, kolaboratzaileen bazka.

Ez espainiak, ez eta frantziak ere, ez digute guri inongo eta inolako eskubiderik aitortu behar.

Espainiak eta frantziak, espainiarren eta frantziarren eskubideak aitortu eta babestu behar dituzten moduan, Nafar legeak, Nafar justiziak, Nafar estatuak babestu behar ditu nafarroon eskubideak. Hori da askatasuna, hori da demokrazia, hori da Nafar nazioaren hitza errespetatzea.

Hain goraiatuak diren nazio zapalduetako kideen gizabanakoaren eskubideek, ezin dute inongo errealitatez izan, eskubide horiek sortu eta bermatzen dituen gutxieneko askatasun nazionalik gabe.

Gehiengoaren izenean, (demokratikoa edo totalitarioa izan daitekeena), gaurko frantziar eta espainiar potentzia okupatzaileek, bere betiko helburu inperialak lortu nahi dituzte: Espainia eta Frantziako "askatasuna, handitasuna eta batasuna", Euskal Herria suntsituz, "egunez egun", "bakean eta demokrazian".

Herri okupatuak ez ditu eskubiderik.

Lan egin dezagun gure estatu propioa ber-osatzearen alde, gure legeak ezartzen saia gaitezen; gure arteko gobernu probisionalaren osa dezagun, arazo eta eztabaidak, gure instituzio propioetan bideratu ditzagun.

Eta hori da politika; gure indarrak ondo bideratzea; helburuak egoki finkatzea, norberaren indarraren arabera, tremendismorik gabe, zuhur, zuzen. Hori horrela, egoera politikoa, gure sasoiaren ispilua izango da. Egoera politikoa, indarren arteko harremanak mugatzen dute eta.

Honek guztiak lotura zuzena du gaurko egun batez gertatu zenarekin. Orreagako gudualdia izan zelako Nafarroako Erresumaren, gure estatuaren sorreraren gertakari kualitatibo ezinbestekoa. Estatu hori bortizki okupatu zuten, aldameneko bi potentzia atzerritarrek errautsi egin zuten, eta historiak eman behar zigun garapena bortxatu.

Europa osoan ezaguna, harreman diplomatiko normalizatuekin, legeekin, antolakuntzarekin. Gaskoinia, Biarnoa, Foix, Goi Aragoi, Errioxa, Euskal Herri osoa batu duen estatu bakarra. Guretzat, propiotzat onartzen dugun estatu bakarra; harrezkerotik, ez dugu beste estatu propiorik onartzen.

Estatu okupatu bat gara, eta ez estaturik gabeko nazio bat. Estatu propioaren defentsa da, garai hartako euskaldunekin lotzen gaituen harrietako bat eta haria ez da eten.

XXI. Mendeko Nafarroak, data hau, Abuztuaren 15a, bihotzean eta memoria historikoan ezezik, egun seinalatu bihurtu behar dugu egutegian, eta behar den moduan, seriotasun osoz, askatasun nazionalaren eguna instituzionalizatu, hedatu, eta eragin politikorako moldatu.

Inoiz, seguru, egun handia iritsiko da, baina ordura arte bezala, gerora ere, Orreaga gogoan izango dugu. Orreaga delako guretzat lehendabiziko ikasgaia, Orreagan dugulako sorrera, Orreaga delako abiapuntua, eta Orreagan idatzi genituelako gure konstituzioaren lehen hitzak, odolez idatzitako hitzak.

